



## Erlezainek erremediorik bilatu ezin, Liztor Asiatikoaren kontra

Hernanin 45 kabitik gora kendu dituzte, baina hala ere, udazkena bildurgarria izan dela diote erlezainek.

AGUSTIN Zabala eta Jexux Aranburu erlezainekin hitz egin du Hernaniko Kronikak, urteko balorazioa egiteko. Sekulako pila ugalduta Liztor Asiatikoa, eta batez ere udazkenean «bildurtzeko moduan» eraso dituzte erlauntzak. /7



## Txapeldun kantxan, eta txapeldun gradetan

22 urte besterik ez, eta binakako txapel handia jantzi du dagoeneko Endika Barrenetxea hernaniarrak. Urriza lagun zuela, partiduko onena izan zen hernaniarra, eta Ezkurra eta Olazarri 31-40 irabazi zioten. Txapeldun izan ziren kantxan, eta txapeldun harmailetan, Galarreta bete egin baitzuten urdinen aldeko jarraitzaileek. /3

### ❖ KONTZERTUA

#### Txistulariak eta akordeoi-jolea, gaur Milagrosan

Gabonetako kontzertua izango da gaur, 13:00ean Milagrosan. Bertan izango dira Txistulari Bandako kideak, eta akordeoi-jolea izango dute laguntzaile. Zortzi kanta joko dituzte. /2

### ❖ SANTO TOMAS

#### Festa polita Hernanin ostiralean

Joan den ostiralean Santo Tomas eguna ospatu zuten Hernaniko hainbat taldek. /2

### ◆ ERRUGBIA

#### Hernani-Santboiana gaur, Katalunian

Katalunian jokatu du gaur Hernanin, 12:00etan, Sant Boi de Llobregaten, Santboiana taldearen kontra (Landaren zela zioen atzoko Kronikak eta errugbi taldeko web orriak). Partidu gogorra dute hernaniarrek, eta puntuak oso beharrezko, beraz, jo eta su aterako dira. ||

### GAUR KRONIKAN

#### LABURRAK /2

**Jasota Bezala:** 'Aza-olioak' Jexux Eizagirre Portillo. /2

#### Eskela /2

**KIROLAK:** Saskibaloia, erremontea, futbola... /3

**Bertsolata:** Hiru bertso emanaldi, datorren astean /8

**Amegar**  
ETXE TRESNAK  
Zatoz!  
eta aurkitu behar duzuna

Hotz-gailuak  
Izotz-gailuak  
Labeak  
Garbigailuak

TELEBISTETAJ  
AUKERA ZABALA

Punta-puntako markak

Txirrila Kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 faxa: 943 55 16 03

**ARALAR**  
TABERNA

GIRO EDERRA  
ETOR ZAITEZ

ZARPA KALEA 8  
943 33 15 06

**AKELENEA**  
Erretesia - XIX Mendeko Sagardotegian

Urtarrilaren 2ra arte  
itxiko dugu.  
Ondo pasa gabonak!

Koldo eta Fina

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

## SANTO TOMAS



Goiz Eguzki jubilatuen etxeko irabazleak

# «Santo Tomasen feriya, txistorra eta sariya», ostiralean Hernanin

Goiz Eguzkik jokoetako sariak banatu zituen ostiralean Santo Tomas egunean. Txistorra jatea ere egin zuten hainbat lekutan. Gaur, Portun, 12:00etan.

NAHIKOA txistorra bazen aukeran ostiralean Hernanin, beste inora joan beharrik gabe. Hasi Plaza Berritik eta Garin, Lizeaga, Goiz Eguzki eta beste hainbat lekutan jarri zituzten paderak martxan, Santo Tomas egunean. CD Hernanin, Gibelalde elkarte edo Herrira mugimendua izan ziren postua jartzera animatu zirenak.

Goiz Eguzkin, Santo Tomaseko feriaz gain, sariak ere izaten dituzte, karta-joko eta kaleko jokoetakoak. Aurtengo sarituak: musean, Francisco Hernandez eta Francisco Navas; bigarren, Agustin Cormenzana eta Fernando Galan. Tutean irabazle, Gerardo Barro eta Manolo Morato; bigarren, Claudio Cao eta Jose Lopez. Puntuatan irabazle, Daniel Carrera eta Basilio Barrado; bigarren, Patxi Apezetxea eta Eugenio Urruzola. Eskoban irabaz-



CD Hernaniko postua, Plaza Berrin.

le, Lucas Yuste eta Florian Martin; bigarren, Abelardo Peinado eta Matilde Castelar.

Kanpoko jolasetan, emakumeetan txapeldun, Tomasa Escarmena eta Loren Oiarbide; bigarren, Vicenta Lopez

eta Sara Merino. Eta gizonezkoetan txapeldun, Jesus Brillo, Lucinio Moreno, Jose Lopez eta Jose Iglesias; bigarren, Eugenio Urruzola, Francisco Navas, Pedro Mugerza, eta Antonio Monje. ||

### 👉 Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Aza-olioak

Hitz horren esanahia ez nuen aurkitu hiztegiatan. Hernaniko amona bati (kaixo Marikarmen!) ikasi nion zer ziren aza-olioak: «Aza egosi, eta gero gaintetik botatzen genion olio errea, baratxuriek. Gabonetan jaten genuen platera zen. Bigarren platera izango zen... arrairen bat... eta, katu-arraia (edo pinpiñua) bazen... hura jakia!». Garai haietan, gosea franko. Franco baitzen nagusi. Jendeak esan ohi zuen: «Belarra jatera etorriko zela euskalduna, Francok hala nahita». Bai etorri ere. Baserrietan ez; baserrietan ez omen zen halako gosarik. Eta otorduan potajea sobratzen bazen, gorde egingo zen, eska-

le-jendeari emateko.

Gaur dauzkagu, Planetan, 900 milioi, goseak. Eta askok hartuko luke belar-izpiren bat, egosi eta jateko, batere oliorik gabe. Gure artean ere hasi zaigu agertzen goseak dagoenik. Ba, Estatu Batuetan soilik, 40 milioi tona janari botatzen dituzte zakarretara = mundu osoko gosea hiltzeko adina. Gurean, batz bestea, 45 kilo janari botatzen dugu euskaldun bakoitzak, zakarretara, urtero. Gure arrantzaleek ere bota egiten dituzte itsasora, sareetan harrapatutako pinpiñuak: merkatuak ez omen ditu begiko. Eta pinpiñuekin batean beste hainbat arrain, milaka kiloka, merkatuaren begietara-

ko guapoak ez (omen) direlako.

Asia kontinentean, bada tribu galdu bat. Otorduan, arroza besterik ez dizute aterako. Eta, hiru ale uzten badituzu platerean, ez dizute barkatuko: jan egin beharko dituzu. Izanez ere: «Sukaldaria mesprezatu baituzu, lehenik; gero, nekazaria; eta azkenik Jainkoa». Zertan esanik ez dago jende harentzat zein den Humanitatearen kontrako krimenik handiena, eta kriminalak zein garen.

Europako Batasunari eman diotela Bakearen aldeko Nobel Saria? Galdetu goseak dagoen jendeari.

Jexux Eizagirre Portillo

## TXISTULARI BANDA

# Milagrosa, txistuak eta akordeoia alaitua

Txistulari Bandak joko du gaur 13:00ean, Milagrosan, akordeoia lagunduta.

PATXI Apezetxea zuzentzen dela, txistulari eta akordeoilari uztartuta ariko dira gaur, Milagrosan. Txistulari Bandak joko du, eta akordeoi joleak izango dira laguntzen. Gabon giroko zortzi kanta, Milagrosa kapera alaitzeko. 13:00ean hasita.

Gabon kontzertuei segida emateko, nola ez, bihar izango da talderik gehiena kalean: ikastetxe, koroak... ||



Txistulariak protagonista, gaur.

### Egitaraua

- Minue.
- Sei doinu Xuberotar:
  - Prima eijerra.
  - Txori erresinola.
  - Atarratze jauregia.
  - Maitea; non zara.
  - Argizaria zerutik.
  - Zu zira.
- Vals con variaciones.
- Txistulari (Zortzikoa).
- Jingle Bell (Din, dan, don).
- Alborada Navideña II.
- Gau erdian (Gloria).
- Ai! Hau gabaren.

### ❖ GAZTE ASANBLADA

#### Truke Azoka bihar, Gudarien plazan

Etxean sobran dagoenari probetxua atera liteke. Horretarako dira Truke Azokak, behar ez duzun hori behar duzunagatik aldatzeko. Gazte Asanbladak Truke Azoka du, bihar, 11:00etan, Plazan. ||

### ❖ OSIÑAGA

#### Mus txapelketa azkarra, gaur Elorrabin

Elorrabi sagardotegian karta jokua dute gaur, Osiñagako auzotarrak. Mus txapelketa azkarra jokatuko dute, 16:00etatik aurrera. Inskripzioa, 20 euro. Saria, bi txerrikume. ||

### ❖ GIBELALDE

#### Olentzerorik ederrena, Lizeagan

Lizeagako auzo elkarteak, Gibelaldeko, olentzero-lehiaketa antolatuko du. Olentzero originalenak irabaziko du saria, eta kontuan hartuko da berrerabiltzeko materialarekin egitea. 10:00etatik aurrera. ||

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## † IXABEL MUJIKA KORTAJARENA

(Jose Urruzolaren alarguna)  
Herenegun hil zen Urnietan, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Animaren zuzendaria: D. Iñaki Aranzadi; seme-alabak: Maixux eta Juanxo Odriozola, Iñaki eta Eukene Balerdi, Pili eta Claudio Sorrondegi, Jokin eta Marijose Etxebeste, Joxe Mari eta Jaione Lizaso, Bautista; bilobak: Olatz eta Iker, Jon, Aitor, Iñaki, Oihana, Leire eta Mikel, Aintzane eta Ioritz, Beñat, Itsasne; anai-arrebak: Antonio (+), Luis (+), Joakin eta Joxe Mari; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko SEIETAN, MIKEL GOIINGERUAREN paroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Urnietan, 2012ko abenduaren 23an

Helbidea: Elutxeta baserria.  
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da.

ERREMONTA - BINAKAKO TXAPELKETA - ORONA TORNEOA - ENDIKA BARRENETXEA:

# «Eskerrak Martindegiri, eta koadrila osoari, Galarretan jarritako giroagatik»

Javier Urrizak eta Endika Barrenetxeak irabazi dute 2012ko Binakako Txapelketa Nagusia. Barrenetxea IVak, 22 urterekin, erremonteko bere ametsa bete du.

**GALARRETA** Oialumeko dantzaleku bihurtu zuten atzo Javier Urrizak eta Endika Barrenetxeak, eta 31-40 irabazi zieten Ezkurra eta Olazarri. Atzo Ezkurra eta Olazarri tokatu zitzaizen Martindegiko erritmoan dantza egitea, eta auzotarren eta koadrilaren bultzadarekin, Barrenetxea IVa gazteak 22 urterekin lortu du bere ametsa, binakako txapel handia irabaztea; eta nola lortu ere, finaleko onenaren saria ere berari eman baitiote.

## Partidu guztian aurretik

Uste baino errazago irabazi zuten partidua Urrizak eta Barrenetxeak. «Lehendabiziko 7 tantotan paretsu ibili gara, baina hortik aurrera nahiko azkar lortu dugu 8-10 tantuko aldea, eta koltxoi

«Erremontean hasitakoan helmuga bat jarria neukan buruan: binakako txapela irabaztea. Orain, atzelari gisa onenen artean kontsolidatu nahiko nuke»



Urriza bide-lagun ezin hobea izan du Barrenetxea IVak.

horri eutsi diogu gero».

Hiru urte profesionalen artean, eta lehendabiziko txapel handia etxean du hernaniarrak. «Egia esan, hauxe

nuen ametsa eta helburu nagusia, profesionalen artean hasi nintzenean». Eta ez nolahi lortua ere, partiduko onena bera izan baitzen.

Sakez lau tanto egin zituen, eta peloteoan erabat dominatu zuen Olazarri.

## «Urriza, profesional eta lagun bikaina»

Txapelketak gorabehera handiak izan ditu, eta baita Urrizak eta Barrenetxea IVak ere. Oso ondo hasi, gero erori, eta juxtu-juxtu pasa ziren finalerdietara. Bukaera ikaragarria egin dute bi gazteek, eta faborito atera dira gaurko finalean. Lagunari buruz galdetuta, hauxe dio Barrenetxeak: «Urriza bide-lagun bikaina izan da, oso profesionala delako. Gainera, erlazio oso ona lortu dugu, eta uste dut hori kantxan ere transmititu egiten dela».

Bete egin zen Galarreta, eta herritar eta auzotarrek bultzatuta egin zieten bi irabazleei. «Eskerrak Martindegi osoari eta koadrila osoari, Galarretan jarritako giroagatik».

Orain, lan egitea tokatzen zaiola azaldu zion Barrenetxeak Kronikari. «Txapel hau gozatu lehenengo, baina gero atzelari gisa onenen artean kontsolidatu nahiko nuke». ■

## ◆ SASKIBALDIA

### Take Orbela aurrean gaur Hernanik; esperientzia txikia, eta kalitate handia

Hernani KE Teklan Laser taldeak Hernanin jokatu du gaur, partidua gogorra aurreikuspenen arabera. Gazteak dira tolosarrak, Take Orbela taldekoak, baina esperientziaren partez kalitatea daukate handia. Hernanik ez ditu denak galtzeko, hala ere, eta gogor saiatuko da 6garren garaiaren bila. Gaur, 12:00etan, Hernaniko kiroldegian. ■

## ◆ FUTBOLA

### Ligako bi onenak aurrez aurre, gaur, Irungo Gal zelaian

Bi onenak dira, dezente aldea erekin, gainera. Real Union eta Hernani neurtuko dira gaur, 16:00etatik aurrera, Irungo Gal zelaian, eta txispak espero dira, irundarrak hil edo bizi irtego baitira garaipenaren bila. Sei puntuko aldea kentzen dio Hernanik Real Unioni. Hiru partidua gehiago irabazi dituzte hernaniarrak; 12 partidua guztira. Real Unionek berriz, bederatzi, eta hor dago bien alderik handiena. Iker Dorronsororen mutilek ez diete inguratzen utzi nahi irundarrei, inondik inora, eta gaur punturen bat ateratzeko asko esan nahiko luke hernaniarrentzat. ■

## AURTENGO GABONETAN OPARITU BIDAIAK

Hegaldiak: joan etorriak, tasak barne

**LA HABANA / SANTIAGO DE CUBA** Urtarrilaren 20an  
Madrildik hegaldia

600<sup>000</sup> €

**NEW YORK** Apirilaren 30era arte (Aste Santua izan ezik)  
Bilbotik hegaldia

430<sup>000</sup> €

**BUENOS AIRES** Apirilaren 30era arte (Aste Santua izan ezik)  
Bilbotik hegaldia

830<sup>000</sup> €

55 urtetik gorakoentzat

**GRAN CANARIA** Urtarrilaren  
Bilbotik hegaldia, 7 gau 3\* hotelean MP

322<sup>000</sup> €

Aste Santua - Marboak 24

**MOSCU + SAN PETERSBURGO**  
Madrildik hegaldia, 7 egun 4\* hoteletan

1215<sup>000</sup> €

OPARI GEHIAGO ERE  
BADITUGU

**vip kofreak**

NEKAZAL ASTEBURUA,  
ZEN EGONALDIA,  
BI LAGUNTZAT SPA...

**19<sup>000</sup>€TIK AURRERA**

**Kontsulta itzazu aukera guztiak!**

AUKERA GEHIAGO ERE:  
[www.bidaibila.com](http://www.bidaibila.com)

## GABONETAKO ZOZKETA

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan  
ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 2an GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

**BALDINTZAK:** Coia: "BIDAIK"  
Adina: 2-11 URTE  
EPEA: urtarrilaren 2a baino lehen

**SARIA:** Apirilaren 2tik 6ra  
Port-Aventura 6 gauetako egonaldia  
2 heldu eta 2 umeentzako

**HERNANI**  
**BIDAIK**

Urbietan, 6  
943 33 00 49  
hernanib@telefonos.es  
[www.hernanibidaia.com](http://www.hernanibidaia.com)

**Eguberri On guztio!!!**



## Axel Aizpiolea - Iheslari Politikoa

# «Ehundaka euskal herritar dago gure egoera berdinean»

Axel Aizpiolea hernaniarrak urteak daramazki Hernanitik kanpora. Iheslaria da, Espainiako Estatuari ihes eginda, mugaren beste aldean bizi da, Hendaian. Bidasoako mugarik ez du pasatzen, baina ez da ezkutuan bizi, «ahalik eta bizitza normalena» egiten saiatzen da. Iheslarien egoerari buruz aritu zaio Kronikari, eta oso garbi dauka, gatazka konpontzeko, herritar ororen inplikazioa eta borroka beharko dela.

**Hendaian bizi zara, Espainiako Estatutik ihes eginda, eta Bidasoako mugarik ez duzu pasatzen. Hala ere, agerian bizi zara.**

Bai. Ahalik eta bizitza normalena egiten dugu. Ipar Euskal Herrian ari naiz ni lanean, LABen, eta seguritate sozialean alta emanda nago. Ditugun zailtasunak zailtasun, saiatzen gara aske bizitzen.

**Eguneroko bizitza zaila al da zuentzat?**

Egoera oso ezberdinak bizi ditugu gure artean. Faktore askok eragiten dute. Lana baduzun edo ez, dokumentazioaren kontua hor dago... Bestelakoan, saiatzen gara senideekin, lagunekin egoten, mendira joaten, bakoitzak ahal duen neurrian, bizirauten.

**Iparraldean bizitza oso ezberdina al da?**

Bidasoako mugak min asko egin du, herri hau zatitzeko erabili izan duten neurrian. Aldaketa nabarmena da, baita kultura aldetik ere. Bakarka bizitza asko egiten da, eta kalean gutxi. Egokitze fase bat

behar da, eta batzuk egiten dute errazago, edo gehiago kostata. Iparraldean ere badago euskal komunitate bat. Hangoarekiko berdina ez dena, baina hau ere Euskal Herria denez, antzekotasun haundiak badiuena zentzu berean. Alde batetik dago kostaldea, pixka bat masifikatua eta kolonizatua, eta bestetik barrukaldea. Ezberdinak dira Sara, Garazi edo Baiona. Barnekaldean lasai eskatu okindegian euskeraz.

**Zer da Iheslarien Kolektiboa?**

Iheslarien Kolektiboak biltzen ditu gu bezala dauden kideak, baina oso ezberdin daudenak ere bai: deportatuak, sasitarak, paperik gabeak... eta eskatu nahi dugu, Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea dugula, bertan lan egin eta era duinean bizitzeko, alegia. Agerian jarri nahi dugu hor gaudela, eta errepresioaren irudi bizia garela, gure idatzietan dion bezala: «askatasun gose den herri baten errepresioaren irudi bizia».

**Zenbat euskal herritar dago horrela?**

Ehundaka. Ehundaka daude gure egoera berdinean. Oso zaila da jakiten.

**Eta hernaniarrak?**


Bostetik gora izango dira seguru, baina zehatz ez dakit.

**Noiz erabaki zenuen ageriko bizitza egitea, eta zergatik?**

Duela urte eta erdi inguru erabaki nuen, hainbat arrazoirengatik. Batetik, umea Euskal Herrian hazi eta hezi zedin, eta gure herrian bizi dugun garai berri hauetara egokitu beharra dagoelako. Gainera, zauden tokian zaudela, beti duzu arriskua etsaiak harra-patu eta eramateko; baina hori bakoitzak oso ezberdin bizi du, batzuk hobeto eta besteek okerrago. Zaila da gauza orokor bat esatea, izan ere, hain da pertsonala!

**Eta batzuk erabaki duzue bizitza publikoa egitea...**

Erresponzabilitatea ere geuk hartzen dugu. Pentsa, Iñaki Imazek 4 urte pasa zituen



Axel Aizpiolea, Hendaia hondartzako pasean.

**AXEL AIZPIOLEA:**

«Ahalik eta bizitza normalena egiten dugu. Ipar Euskal Herrian ari naiz ni lanean, LABen, eta seguritate sozialean alta emanda nago. Ditugun zailtasunak zailtasun, saiatzen gara aske bizitzen»

klandestinitatean eta juxtu, bizitza publikoa egiten hasi eta hilabete pasa zenean atxilotu egin zuten. Hori beti presente eduki behar duzu.

**Aurore Martin extraditatu zutenean ere mugimendu haundia sortu zen hemen. Batasuna legala da hemen baina hala ere extraditatu egin zuen Frantziak. Nola bizitu zenuten hura?**

Horrelako sarekada bat jotzen dutenean, berriz hankak lurrean jartzen dituzu. Kon-

turatzten zara errepresioak segi egiten duela, berriz haserrea sentitzen da... inpotentzia; gatazkak bere horretan jarraitzen duela adierazten digu horrek.

**Gertatu izan da zuen moduan bizitza publikoa egiten duen pertsona batek erabakitzea, muga pasa eta hegoaldean saiatuko dela bizitzen. Plazorik-edo ba al daukazue jarrita?**  
Plazorik ez daukagu, oraindik baldintzarik ez dagoela-

ko. Espainiak eta Frantziak lehengo politika berarekin segitzen dute. Iñaki Imaz eta Aurore Martinena oso esanguratsua izan da, bi adibide emateagatik.

Frantzia inplikaturatuta dago gatazka honetan. Jarrera ez du aldatu eta Espainiarekin eskutik helduta dijoa.

#### Ez al dago aldaketarik?

Ez da ikusten. Blokeoan iraun nahi dute. Blokeoari eustera joan izan dira beti eta jarraituko dute. Lehengo kontu bera. Eta alde horretatik ikusten da gainera, minik haundiena egiten duten sektoreak ari direla jipoitzen edo estutzen.

#### Egoera politikoa, dena den, asko aldatu da...

Bai, egia da alde batetik egoera asko aldatu dela: ETaren behin betiko armen uztea, ezker abertzalearen legalizazioa... Baina bestaldetik ez da hainbeste aldatu: errepresioa, preso politikoen egoera... Hala ere, Aieteko bigarren puntuan garbi jartzen du bi estatuek ere mahaian eseri behar dutela.

#### Batzuk diote, Euskal Herriak bakarrik egin behar duela bidea, Frantzia eta Espainia kontuan hartu gabe.

Bai. Baina gatazkaren zati haundi bat konpondu gabe geratuko litzateke horrela. Frantziak eta Espainiak eseri beharko dute presoeri buruz hitz egitera, iheslari eta deportatuei buruz hitz egitera. Bestela gatazka ez da erabat bukatuko.

#### Eta erremediorik ikusten al duzue?

Herriak dauka irtenbidea eta gakoa. Garbi daukat hori. Katalunian ikusi da, herriak nahi zuen eta tren martxan jarri zen, eta politikariak igo dira, presaka, eta azken bagoian. Euskal Herrian berdin pasako da. Nahi behar da aurrena, gauzak aurrera atera ahal izateko. Gatazka internazionalan ibiliek ere hala diote: herriak desbloketatuko duela azkenean, egoera.

#### Alde bateko zein besteko minak eta sufrimenduak sendatuko al dira?

Iritsiko da garaia, horretarako ere. Baina Euskal Herria bere osotasunean da gatazka honen biktima. Kaltetuak badira han-hemenka. Gatazkaren gordintasuna eta berau konpondu beharra uzten du agerian horrek. Gatazka konpontzea da lehentasuna.

#### Eta bitarte horretan, zuen egunerokoan segiko duzue. Zer botatzen du faltan gehien Axelek?

Kaleko saltsa, paisajeak... txikitako paisajeak; ez dira hobeak, baina zureak dira! Txilin kafetxo bat, Riojan bazkaltzea, Akerren pote bat... Igandeetan adibidez, banuen nik ohitura Goiz Argin txupito bat hartzeko, belarrarena, eta purito bat. Eta igual ez zegoen inor tabernan! Falta direnean apreziatzen dira horiek. Eta nola ez, lagunak, sendia, aske sentitzea, eguneko azken zigarroa erretzean bihar Hilargi oheratzeko hemen egongo ote naizen kezka ez izatea. ■

#### AXEL AIZPIOLEA:

«Zauden tokian zaudela, beti duzu arriskua etsaiak harrapatu eta eramateko, eta hori bakoitzak oso ezberdin bizi du, batzuk hobeto eta besteek okerrago»

«Iheslarien Kolektiboak biltzen ditu gu bezala dauden kideak eta baita ere deportatuak, paperik gabeak... Eskatu nahi dugu Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea dugula. Agerian jarri nahi dugu hor gaudela, eta errepresioaren irudi bizia garel»

«Euskal Herria bere osotasunean da gatazkaren biktima. Kaltetuak badira han hemenka. Gatazkaren gordintasuna eta berau konpondu beharra uzten du agerian horrek. Gatazka konpontzea da lehentasuna»



Axel Aizpiolea, atzean Hondarribia duela.

## «Iheslarien eguna egingo dugu martxoan»

IHESLARIEN Kolektibo bat bada, iheslari, deportatu, paperik gabeko eta abar biltzen dituen, eta egun berezi bat egingo da martxoaren 2an, Lapurdin, haiek ere hor daudela aitortzeko. Iheslarien Eguna deituko diote, eta lema hau izango du: *Askatasun haizea dabil... iheslariak Hernanira!* Egun hori aprobetxatu nahi da beraien egoera argitara emateko eta euren garrantzia zein den azpimarratzeko. «Iheslarien eguna egingo da datorren martxoan. Orain arte ez da asko hitz egin izan egoera horri buruz, eta prozesu politikoa egoera honetan egonda, errealitate hori ere plazara atera behar da». ■

## GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



*Eskerrik asko  
Hernani eta hernaniarroi  
beste urte betez  
gurekin izateagatik*



"BERRIAK"  
HERNANIKO MERKATARIEN  
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

# Hernaniko kronika

## GABONETAKO ZOZKETA 2012

Egin zure erosketak Hernanin!  
HERNANI BIZIRIK!

MILA ESKER PARTE HARTZEAGATIK

1go  
SASKIA

3.776

**Tripontzi** 2 lagunentzako afaria  
**Leokadisti** 2 liburu  
**Valen** Umeentzako txandal bat  
**Ezkerro Frutak** Fruta saski bat  
**Hoki** Nesken pijama  
**Jaione** 2kg langostino gordinak  
**Oihala** Franelazko maindireak  
**Txilibita** Ardoa, 3ko lotea (kriantza)  
**Aitor Peña** 5 litro olio  
**Ibai mendi** Makilak  
**Arregi** Aulki bat  
**Ezkati** Korte eta tintea  
**Distira** Belarritakoak  
**H.Kronika** Argia aldizkarirako harpidetza bat  
**H.Kronika** Ume jolas sorta  
**Nekane** Esmaltado permanente bat

2.  
SASKIA

4.152

**Alkorta** Paleta iberikoa  
**Urbietza kopiak** Bulego materiala  
**Feli** Manta bat  
**Aitor Peña** Detergente pakete laundia  
**Nekane** Kutis garbiketza bat  
**Irigoyen** Etxeko zapatillak (2 pare)  
**Aralar** Viña Real ardo kaja (kriantza)  
**Mariscos Hernani** Marisko saskia  
**Adarraga** Turroi sorta bat  
**Txilibita** Ardoa, 3ko lotea (kriantza)  
**H.Kronika** Ume jolas sorta  
**H.Kronika** Liburu: Eritmoa, kazetariaren batuta  
**Marife Arraindegia** Xapoa  
**Kistiñe** Gure kafe onenaren paketea  
**Distira** Fularra

3.  
SASKIA

2.417

**Kaixo** maleta bat  
**Hernani Bidaiak**  
HOTEL EL MUELLE \*\*\* (Suances)  
*Gau bateko egonaldia bi pertsonentzat*  
*Mariskada + gosaria + spa*



4.  
SASKIA

512

**Joxe Mari** Kriantza ardo kaja, 6 koparekin  
**Txilibita** ardoa, 3ko lotea (Olmaza autor kriantza)  
**Distira** Poltsa bat  
**H. Kronika** Argiarako harpidetza  
**H. Kronika** Ume jolas sorta  
**Marife Arraindegia** 2 kg. Ganba  
**Kistiñe** 2 pertsonentzat gosaria  
**Feli** Manta bat  
**Torres** Prismatikoak  
**Balantxa** Iratzargailua  
**Kera** jertse bat  
**Nekane Estetika** Kutis garbiketza  
**Urrats** Nordika etxeko zapatillak  
**Urumea burdindegia** 6 whiskey baso  
**Antziola okindegia** Errege roscoa



### JOXE MARI

Kriantza ardo kaja 6 koparekin



### TXILIBITA

Ardoa, 3ko lotea (Olmaza autor kriantza)

5.  
SASKIA

1.759

**Onddi** Viña Real ardo kaja  
**Amegar** Kafetera bat  
**Kaixo** Maleta bat  
**Marife Arraindegia** Legatza  
**Feli** Manta bat  
**Antziola okindegia** Errege roscoa  
**Kistiñe** Infusio pakete bat  
**Telemar** Panasonic telefono inalambrikoa  
**Urumea burdindegia** 6 katiluko kafe jokua  
**Jaione** Iberiko lotea  
**Arrobi Ostatuak** Afaria bi pertsonentzat  
**Hernaniko Kronika** Ume jolas sorta  
**Hernaniko Kronika** Liburu: Eritmoa, kazetariaren batuta  
**Zintzarri taberna** 6 botila ardo (reserba)  
**Nekane** Esmaltado permanente bat



### ANTZIOLA OKINDEGIA

Erregetako roscoa



### ONDDI

Viña Real ardo kaja

AGUSTIN ZABALA ETA JEXUX ARANBURU - ERLEZAINAK

# «Datorren urterako beldurrez gaude, erle gazterik ez daukagulako erlauntzetan»

Liztor Beltzak sekulako sarraskia egin du aurten, erlezainen artean. Ezti produkzioan baino gehiago, erlauntzetan eragin dute kaltea, «eraso haundiena hasi zutenerako ezta egina zegoen». «Datorren urtea okerragoa izango da».

2010 URTEAN iritsi zen gugana, eta dagoeneko plaga bihurtu da. Liztor Asiatikoak edo Liztor Beltzak (*Vespa Velutina Nigritorax*), sekulako sarraskia egin du Hernaniko eta Gipuzkoako erlauntzetan. Erleen %30 inguru galdu dute erlezain batzuek; beste batzuei ez hainbeste, baina datorren urterari beldurra diote. Ezti produkzioari ez dio gehiegi eragin aurten. Izan ere, erasorik haundiena uda bukaeran izan da, eta ordurako ezta egina zegoen.

Agustin Zabalak azaldu dio Kronikari bere kasua: «Liztorraren eraso haundiena ezta egin eta gero izan da, uda bukaeran. Sekulakoa izan da; etenik gabea. 32 erlauntzatik 9 galdu ditut nik. Ezta ondo egin dute, eraso hasi baino lehen egin dutelako. Nik neronek iaz baino gehiago izan dut. Txilarraren ezirik ez, hori ez dute egin, azkeneko lorea izaten baita txilarrarena, eta ordurako eraso hasia zen».

## Aurten, 45 kabi suntsitu dituzte Hernanin

2012an 45 kabi kendu dituzte Hernanin. Basozainek kendu dituzte horietatik 13 eta suhiltzaileek 10; gehienak eskuz kenduak dira, gruaren laguntzaz eta abar. Gainerakoak ehiztariek edo erlezainek kendu dituzte, 23 kabi inguru; gehienak tiroz boteak dituzte, baina eskuz kenduak ere bai.

Diputazioak jakinarazi duenez, guztira 657 kabi suntsitu ditu Gipuzkoan. Aurten go jarduna eten egin du Diputazioak, kabiak dagoneko hutsak daudelako.

## «Sarraskia, udazkenean»

Irailetik azaroa bitartean egin



Agustin Zabala eta Jexux Aranburu liztor kabiak harrapatzen ibili dira udazkenean.

dute sarraskia haundiena liztor asiaticoen. «Eroto modukoa zen, egun horietan. Erlauntzaren inguruan zientoka liztor, eta erlea ateratzen ez. Bat ateratzen bazen, harrapatu egiten zuten», dio Jexux Aranburu erlezainak. «Edo barrura sartu eta harrapatzen zuten erlea. Erlauntza batzuk hutsak geratu dira», dio Agustin Zabalak. Itxura denez, erleak oraindik ez daki nola jokatu, eta erlauntza barruan geratzen da. Horrek esan nahi du, ez duela lanik egiten, eta okerrago dena, ez du generazio berri ateratzen.

Liztorraren zikloa puri pu-

rian udazkenean egoten da. Neguan denak hil egiten dira, eta erreginek segitzen dute bizirik. Ibernatu ostean, kabi egiten hasten dira. Lehenengo kabi txiki bat, gero beste bat haundiagoa, eta hirugarrena izugarria, langile pila bat dauzkalako laguntzeko. Udazkenean, 6.000-10.000 liztor inguru daude kabi bakoitzean, eta horiek guztiak jateko eta beren kumeei jaten emateko jaki asko behar dute; besteak beste, erleak.

«Erleak jaten dituzte eta ezta ere bai. Neri harri haundi batek jota bota zidan erlauntza bat. A ze festa, liztorrek!».

Jexux Aranburuk bi erlauntza galdu omen ditu. «Ez da asko, baina datorren urterako beldurrez nago, erle gazterik ez daukagulako erlauntzetan».

## «Beldurrez gaude, datorren urterako»

Datorren urterako beldurrez gaude erlezainak. Iraun duten erlauntzetan erle zaharrak geratu dira, erreginak ez delako jarri azkeneko arrautzaldia. «Negua baino lehenago azkeneko erle-aldia jartzen du erreginak, eta horiek dira udaberrian lanean hasiko direnak. Aurten erreginek behar baino lehenago utzi diote arrautzak

## Liztor asiaticoa

(*Vespa velutina nigritorax*)

Jatorria: Asia (India, Indonesia, eta Txina).

Generoa: Vespidae, liztor haundia.

Tamaina handiena: 2 cm langileek eta 3 cm erreginak.

Itxura: beltza, ertz hori-laranja. Hanka muturrak horiak. Aurtean bi pintza indartsu. Eztena, 6 mm-koa.

Abitata: leku menditsuak, baso eta hezetan haundiko lekuak.

Kabiak: lurretik 15 metrora egiten du, zelulosazkoa. 70 cm luze, 55 cm zabal. 8.000 liztor kabitzen dira.

Janaria: frutetako glukosa eta erleak ematen dizkiete kumeei.



## Kabiak non kendu diren

(Kronikak jakin ahal izan dituenak)

- Hernani aldean: Arrobian 2, Institutua 1, Iberdrolako estazioa 1, Elizabxo 1, Sandiusterra 1, Mandazubi 1, Elorabi 1.
- Ereñotzu aldean: Fagollaga 2, Akola 1, Ereñotzu 2, Labxe 2, Iturralde 2, Izeneder 1, Bezkita 3, Ugaldetxo 1, Aparain 1, Olazar 1, Urruzuno 1, Leitzane 1, Urmendi 3, Pagoagako iturria 1, Iyola 1.
- Arano eta Goizueta aldean: Añaño 2, Kaxeta 1, Goizueta 2.

jartzeari, beraz, generazio zaharra dago erlauntzetan, eta logikoena da horiek udaberrian hiltzea».

## Erlezainak, etsitzen

Prentsak egunotan kaleratu duenez, 10 erlezainetik 2k utzi egingo du ofizioa. Lehendik ere erleak bazituen etsaiak: barroa (akaina moduko parasito txiki bat) edo pestizidak (kalte haundia eragin dute). Orain, Liztor Beltza iritsi da. Beste leku batzuetan erleak bizi dira liztor beltzarekin. Denborak esango du zer nolako eboluzioa izaten duen gure alderdi honetan. II

# Azukre bila, sagarretara

Liztor Asiatikoak paraje ederra bilatu du gurean, eta ezin hobeto ari da egokitzen. Jatena nahikoa, hezea, basoa... «etxean bezala» dagoela zioen Julian Urkiola Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko lehendakariak iaz, Kronikan. Erlezainek jo zuten lehendabiziko SOSa, baina aurten sagar zaleak ere kejan hasiak dira Goierri aldean-eta, sagastietan kalteak eragin dituelako. Sagarrak erabat ustutzeraino jaten ditu liztorrak, itxura denez, azukre bila joanda.



☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622  
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
 ☪ FARMAZIAK ● Eguez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Etxebeste Elcano 9 - 943 552087

**EGURALDIA** **GAUR** Negu-neguan egonagatik, jertse axialarekin ateratzeko eguraldia egingo du gaur. Eguzkia nagusi eta hego-haizea, egun guztian. Min.9º/Max.23º.  
**BIHAR** Hego-haizeak epel eutsiko dio goizean, eta ostarreak. Arratsaldean ipar-mendebala sartuko du, erabat lainotu, eta temperaturak hoztera. Euririk apenas. Min.11º/Max.20º (euskaime)

## BERTSOLATA



'Agñi-ano' eta Lujanbioren txapelek eman zuten zer esana. (Arg.: Alberto Elozegi (frai) www.albertoelosegi.com)

# Hiru bertso ekitaldi aste honetan; tartean, 'Soziedadeak Bertsotan'

Astelehenean Olentzero ibiliko da baserriz baserri, ostiralean Soziedadeak Bertsotan, eta larunbatean bertso musikatuak.

BIGARREN astean sartu da Bertsolata, aspaldiko egitarau haundienarekin. Aste honetan hiru bertso ekitaldi daude prestatuak, astelehen, ostiral eta larunbaterako.

Astelehenean, Olentzero ibiliko da baserriz baserri, gabon eskean, bertsoa eta musika lagun dituela. Zikuñaga eta Osiñaga auzoetan ibiliko dira, eta autobusa ere izango dute. Gudarien plazan, 15:30etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

**Bederatzi elkarte, bertsotan** Ostiralean, abenduak 28,

Hernaniko Soziedade Gastronomikoak neurtuko dituzte indarrak, bertsotan, Sagastialde elkarteetan (bera baita babeslea). Iaz Karobi elkarteak irabazi zuen, Beñat Gaztelumendi bertsolariarekin. Aurtan 9 elkarte izango dira, eta bertsolari banak ordezkatuko ditu: Unai Gaztelumendi (Txantxangorri); Iñaki Zelaia (Peña Otaño); Eli Pagola (Santa Barbara); Aritz Zerain (Urmia); Amaia Otxotorena (Sagastialde); Xabier Legarreta Arano (San Roke); Oier Iurramendi (Karobi); eta Asier Azpiroz Azpi (Xalaparta).

Oraindik badira 25 sarrera salgai, Aralar tabernan, 18 euroan (afaria eta saioa barne).

Larunbatean, bertso musikatuak izango dira Biterin. Emanaldia estreinatuko dute Eñaut Agirrek, Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak.

**Bertsolata, 'gutuziazkoa'** Bertsolata indarrean hasi da. Umeen saio jendetsuaren ostean, ostegunean, Basque Culinary Center bete egin zen, eta gozatu polita hartu zuten inguratutakoek. Aperitibo ederra, gutuziazko Bertsolatarako. ||

## PUBLIERREPORTAJEA



Maialen eta Manoli ama-alabak, dendan.

### ARRIATZU BARAZKIAK

# Baserriko barazkiak, eta gehiago!

HERNANIN, Arriatzu baserrian ekoiztutako produktuak esku-eskura daude. Garaian garaiko barazkiak saltzen dituzte Zapa kaleko denda berrian. Ezagutu eta probatzera gonbidatzen zaituztete, prezio-kalitateak merezi du eta!

#### Garaian garaikoak

Porruak, azak, azelgak, kalabazak, lelak... sasoia kontuan izanda, euren baratzetako produktuak daude eskuragarri dendan. Arrautzak ere badituzte, baserrikoak.

#### Landareak, zure baratzerako

Erositako tomatea gustatu zaizula? azelgak zure baratzean nahi dituzula? landareak ere salduko dituzte, produktua zurea izan dadin hasieratik, zure baratzean ekoiztua.

#### Barazkiak, txikituta

Denboraz eskas dabilzantentzat, edota hala nahigo dutenentzat, barazkiak txikituta ere salgai dituzte. Eguneakoak izango dira: purea egiteko kalabaza, eskarola, porrua, azenarioa; leka txikitua; borraja garbitua...

#### Ogia eta bestelako kutixiak

Dorronsoroko ogia, babarrun txuri eta beltzak, yogurtak, gazta, sagardoa, zainzuriak... hain gure-gureak diren beste hainbat kutixi ere badituzte aukeran.

### IRAGARKI MERKEAK

Pisu bila gabiltza, errentan, Hernanin edo inguruan. 3 logela. Altzaririk gabe hobe. Deitu: 943 33 26 71

Persona baten bila nabil etxea konpartitzeko. Deitu: 677 393 597

Euskara irakaslea, logopedian graduatutako neska, eskola errefortzuan aritzeko prest. Deitu: 635 706 241

2 kotxerentzat garajea alokatzen dut, Garcia Goldarazen. Modu onean. Deitu: 686 246 770

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri.

Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com

Enara Goikoetxea. Sendabide energetikoa, Maestra Reiki, Kristaloterapia, Obsidiana harrien masajea beroa, Ayurveda Masajea, Bach loreak, Metamorfikoa, Argi Kanalak. Tel: 649700762.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ANTZIOLA, 3  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA

tripontzi  
taberna

Egunero  
Menuak

Kardaberaz, 11    tf: 943555724